



Euskal Kazetarien Elkarteak eta Elkargoak babesa adierazi nahi diete 'Egunkaria'ko kazetari eta langile guztiei

Gaur, 2018ko otsailak 20, hamabost urte betetzen dira euskal kazetaritza kolpatu zuen ekintza batetik: Guardia Zibilak 'Egunkaria' itxi zuenetik, hain zuzen. 15 urte dira, beraz, orduan euskaraz osorik sortu, ekoitzi eta argitaratzen zen egunkari bakarra itxi zutela. Urteek argitu dute, gainera, itxierak ez zuela inolako oinarri juridikorik izan eta ideologia zein hizkuntza-errepresioek bakarrik eusten zietela ekintza polizialari.

Urteak igarota, justiziak arrazoia 'Egunkaria'ri eta bertako langileei eman badie ere, sortutako kalte eta minak ez du atzera bueltarik.

AVP-EKE eta CVP-KEEk babesa adierazi nahi diete 'Egunkaria'ko kazetari, langile eta berauen senideei, jasandako guztiagatik: tratua, akusazioa, tortura, inkomunikazioa...

Gizarte demokratiko bat demokratiko izateko ezinbestekoak ditu informazio eta adierazpen-askatasuna.

Horregatik, Kazetaririk gabe Kazetaritzarik ez, Kazetaritzarik gabe Demokraziarik ez.

La Asociación y el Colegio Vasco de Periodistas muestran su apoyo a los/as periodistas y trabajadores/as de Egunkaria

Hoy, 20 de febrero de 2018, se cumplen 15 años del gran golpe que sufrió el periodismo vasco: que la Guardia Civil cerrara el periódico 'Egunkaria' 15 años, por lo tanto, desde que cerraran el único periódico que nació, se produjo y se publicó en euskera. Con el paso de los años se ha aclarado que, además, el cierre no tuvo ningún tipo de base jurídica y que eran las represiones, tanto de lenguaje como de ideología, las que sostuvieron la acción policial.

Pasados los años, y aunque la justicia haya dado la razón tanto al periódico 'Egunkaria' como a sus trabajadores/as, los daños derivados de esta acción no tienen vuelta atrás.

Tanto la AVP como el CVP quieren mostrar su apoyo a todas/os las/os periodistas, trabajadoras/es y a sus familiares por todo lo que han pasado: el trato, la acusación, la tortura, la incomunicación...

En una sociedad democrática es indispensable la libertad de información y de expresión.

Por eso, Sin Periodistas no hay Periodismo, y sin Periodismo, no hay Democracia.